

# ARRANTZALEAREN ETXEA

## KONTZEPTUA

Arrantzaleen etxea deituko dugu, kostaldeko arrantzaleen alde edo auzoan kokatua izanik, tradizioz, arrantzaleen eta euren familien etxebizitza dena.

Badaude udalerrriak, arrantzaleak baino bizi ez diren “arrantzaleen auzorik” ez dutenak. Hain zuzen ere, hauxe da portu garrantzizkoenen (Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, ...) kasua, biztanlego arrantzalea kale guztietatik hedatzen baita, logikoa denez, portutik hurbilen dauden kaleetan familia arrantzale gehiago bizi bada ere.



Lekeitioko Antzar Eguna, XX. mendearen hasiera. Herritarrek portuaren inguruan egiten zuten bizitza, bertatik gertu bizi baitziren arrantzale-familia gehienak.

Ez dago Euskal Herrian<sup>1</sup> arrantzaleen etxebizitza mota berariazko edo tipikorik, zeren eta hauek okupatzen dituzten gelak ez baitira beste biztanle-talde batzuetakoenetik ezertan bereizten, txirotasunean ez bada. Arrantzalea eta bere familia (ugaria kasurik gehienetan), kostaldeko udalerrien etxe edo lokal txarren eta osasunkaitzenetan (teillatueak, ardantegiak eta baita aintzinako ikuiluak ere) bizi izaten zen. Honetaz interesgarria da zenbait idazlek arrantzaleen etxebizitzaz egiten dituzten deskribapenak aipatzea: Las habitaciones que ocupa la clase pescadora de nuestras costas son siempre las peores, salvo, naturalmente, algunos casos de pescadores que estén mejor o de patronos con suerte, que a veces unos y otros tienen hasta casa propia; pero lo corriente en la clase pescadora es vivir siempre en las casas peores y o bien en las buhardillas, cuando se mezclan con el pueblo, o en barrios separados de aquel, como ocurre en la mayoría de los casos<sup>2</sup>.

Bizkaitar arrantzaleen etxebizitzaren egoera, 1925. urtean Donostian izandako "Asamblea de Pesca Marítima Vasca" izenekoaren ponentzi batean

deskribatu zen, etxebizitzaren kalitate txarrak sorrarazten zuen arazo larrirako konponbideak proposatuz: Casas viejas, casas que se desmoronan por la acción del tiempo; casas raquíticas, destrozados sus suelos, deslucidos sus techos por la influencia destructora de la humedad; sin luz; alcobas infectas, en las que se almacenan las gentes, en desdichadas promiscuidades, son estos hogares indignos para hombres y en ellas viven nuestros pescadores con sus familias numerosas<sup>3</sup>.

Nahiz eta deskribatua, euskal itsasaldeko arrantzaleen etxebizitzak, kasurik gehienetan, garbi eta txukun zeuden arrantzalearen emaztearen lanari esker. Baina, hala ere, argirik eta aireztatzerik eza eta espazio erabilgarri urriagatik ez ziren abegitsuak izaten; kontutan hartzekoa da, esandakoaz gain, etxebizitza hauen arteko askotan senar-emazte batzuk euren seme-alabekin<sup>4</sup> batera bizi zirela, kasurik gehienetan familia bereko kideak (gurasoak eta seme-alaba ezkonduak eta ezkongabeak, eta ilobak).

Etxebizitzak oso gutxitan izaten ziren jabetzan, kasu gehienetan arrantzale

ontzizabe edo ontziburuenak baitziren. Azken aipatuen etxebizitzak, tipologia berekoak baina zabalagoak, hobeto argituak eta haizeztatuak ziren.

## TIPOLOGIA

Arrantzaleen etxeak, kostaldeko hirien eraikinen tipologia orokorrekoak dira. Kale estuetan edo portura jotzen duten labarretan, euron artean estu-estu, altuak (bost solairurainokoak) eta estuak dira; bi uretarako teilatuarekin, fatxadaren pareko bandarekin (nahiz eta ugariak izan banda perperdinkularreko teilatuak);

harlanduzko beheko solairua, fatxada nagusian lehio eta balkoi ugariekin (oraintsuago, sarri askotan, begiratokiengatik<sup>5</sup> aldatuak), hauxe izanik argirako eta aireztatzeko ohiko bidea. Kaleetan dauden etxeen atzealdeek, halaber, zenbait lehio eta balkoiak ere izaten ohi dituzte. Hau ez da honela portuen labarren gainean eraikietan (edo, gutxienez, hauetako solairu

behekoenetan), zeren eta harrin "tartekaturik" baitaude. Beheko solairuak, arrantzarako ontzien lanabesak pilatzeko sotoekin, merkatalgune txiki, tailer edo tabernek okupatuta egoten ohi dira. Etxebizitzetara sarbidea, tramu bakarreko edo zig-zag erako aldapa gogorra duen eskailera batez izaten ohi da. Portuetako labarretan dauden etxeetan sarri askotan



PTE TEXTO Nº 5

Ondarroa. Arrantzaleen etxeak portuan: altuak eta estuak, kofradia eta elizaren artean kokatuak.

gertatzen da eskailera, tramu bakar batekoa, eraikinaren kanpoaldean kokatzea, eta baita eskailera bakar bat, elkarren ondoko bi etxetako geletara sartzeko balio izatea ere.

Fatxadak, karesnez margotuta egoten ohi dira, zeini, sarri askotan, kolorezko margoren bat gehitzen zaiola: urdina, horia, berdea, gorria. Zurlana ere kolorez margotzen da, ia beti berdea, urdina edo marroia.

Barrualdeko banaketa oso antzerakoa da guztietan: Por lo general constan de Cocina-Comedor, una sala de estar (que no usan) y dos o tres habitaciones. Casi todas tienen retrete, pequeño y oscuro, lindante con la cocina; en muy pocas casas hay baño.

La principal pieza de la casa es la cocina y en ella se hace la vida ordinariamente. Los dormitorios suelen ser pequeños y a veces sin ventilación directa. Hemos visto una casa con tres dormitorios, dos de los cuales no tenían luz y uno tan pequeño que cabía justamente la cama sin que quedase sitio ni para una silla.

La sala, por lo general, es la mejor habitación de la casa; suele haber

una cómoda o arca, mesa y sillas. De sus paredes cuelgan retratos de los miembros de la familia, del vapor donde trabajan los hombres y otros recuerdos sentimentales, además de maquetas y trabajos rústicos de los pescadores hechos en los ratos de ocio.

En general todas las viviendas son pequeñas, de techos bajos y poco ventiladas. Aunque se observa bastante orden y limpieza, no resultan acogedoras principalmente por su oscuridad, y por la falta de espacio

para desenvolverse holgadamente.

Se observa un detalle curioso en estas casas y es el predominio del color verde en su decoración. rara vez están empapeladas las paredes que, por lo general, están pintadas al temple y aún al óleo<sup>6</sup>.

Oso deskribapen ederra, bermeotar

PTE TXT 6



Lekeitioko portua. Lehenengo lerroan, etxebizitza tradizionalak; bigarren planoan, aldiz, eraikuntza modernoak.

arrantzaleen etxeetarako bakarrik ezeze, denetarako baliogarria baita. Dena dela, bertan aipaturiko zenbait alderdi komentatu behar dira.

Sarri askotan, arrantzaleen etxeek ez zuten komunik izaten. Kasurik onenean kolektibo bat izan zitekeen etxeko bizilagun guztientzat, eraikinaren atzealdean kokatua. Ohikoa izaten hasi zenean, sukaldearen zati batean edo, etxeak zuenean, atzealdeko balkoiaren mutur bat aprobetxatuz egiten zen.

Egitan, etxean gehien erabiltzen zen gela sukaldea zen. Han egiten zen eguneroko bizitza, janarien prestakuntza, jatea, bisitarien harrera, arrantzarako aparailuak gertatzea, familia bertan batu izanik. Egongela, oso kasu berezietan bakarrik erabilia izanik, etxebizitzako gela "tabu" izaten zen. Beraren ondoan, eta sarbidez, gurasoen edo adinik gehieneko senar-emazteen (aiton-amonak, biak bizi izatearen kasuan) logela nagusia egoten zen<sup>7</sup>.

Logelak, ia beti itsuak izaten ziren eta, aireztatzerik izatearen kasuan, etxeko beste gelek (sukaldea, pasabidea, beste logela bat, egongela) edo eskaileraren hutsgunearekin komunikaturik, ia sabai-mailako lehio txikien bidez izaten zen. Zenbait logelatan, hain txikiak izanik, oherako baino ez zen lekurik izaten. Ez zeuden itxita ere, intimitate minimoa mantendu ahal izateko gortina bat erabiliz.

txt 7 pte



Bermeoko portua XX. mendearen hasieran. Arrantzaleen etxeetako beheko solairuak bodegak ziren eta arrantzatzeko tresnak gordetzeko erabiltzen ziren. Halaber, tailerrak edo tabernak ere izan zitezkeen.

**BERMEOKO ARRANTZALEEN ETXEA**

Adibidetzat hartzen den etxea, Bermeo hiriko Intxausti kalean kokaturiko higiezina zen. Hain egoera txarrean egonda, joan den mendeko 70 hamarkadan lurreraturiko arrantzaleen etxea dugu. Bermeoko alde zaharreko etxe tipiko bat da, beroni atxikitako beste bi aldamenetan dituela, hauen fatxada aipatu kalera jo izanik; atzealdea, etxadi bereko iparraldeko higiezinetatik bereizten dituen patio txiki batera agertzen da. Beheko solairua harlanduzkoa eta, gainerakoa, zurezko egituraren gaineko kare eta kantoizkoa da.

Etxearen fatxada, I-H norabidean eraikia, eguerdirantz orientatua da. Teilatua ur bitara da eta, inoiz, banda, fatxadarekin perpedinkularra du, alde honetan ohikoa, parekoa izatea bada ere. Eraikinaren zabalera, lau metro eskasekoa da. Beheko solairua, hiru solairu (altuerako bi metro baino zerbait gehiago dutenak) eta teilatuaren azpiko beste bat du, oso altuera txikikoa izateaz aparte (metro bat baino zerbait gehiago), sarbide bakarra hirugarren solairuko bizitzaren barrualdetik duenez gero, oso gutxi erabili ohi dena.



Bermeoko portu zaharra. Arrantzaleen etxeak itsaslabarrean. Leiho eta balkoi ugari begiratokiak dira orain.

Fatxada nagusiaren kanpoaldean, eraikinaren atartera sartzeko ataria eta bizitzen egongeletako lehioak eta balkoiak daude. Balkoiak, fatxadaren erdialdean jarriak, burdin forjatuzkoak dira (zurezko balkoiak ordeztuz joan ohi ziren, haiek ez baitira egun ia ikusten). Barrualdetik sarbidea, kristalezko ate bikoitz batez egina da. Honek, balkoiaren aldamenetan dauden bi lehio txikiekin (metro karratu batekoak baino txikiagoak) batera, argia eta aireztapena ematen die etxebizitzari.



Zur lodiko ate soil bat da eraikinerako sarbidea, solairuetara igotzen duen eskailera eta beheko solairua okupatzen duen sotoaren atea bertan dauden sakonerako ia 3 metro dituen atarte batera garamatzana. Eskailera tarte bakar batekoa da, bizitzen ateen arteko bakoitzean mailarte txiki batekin.

Etxebizitza denek dute egitura berdina: sukaldea, komuna bertan instalatu izanik; egongela; eta lau logela, eurotariko hiru itxiak eta bata irekia, denak itsuak. Egongela H-ra, Intxausti kaleko fatxada nagusira zuzendua da. Aitzitik, sukaldea I-ra begira dago, balkoi baten bidez patiora jo eginaz. Leihoen eraketa eta balkoira sarbidea

parekoa da hemen eta egongelan baina, komun bat instalatu denez gero, leihoen arteko bat gela txiki honetarako da, balkoirako ate bikoitza eta beste leihoa baino ez baitaude sukalderako. Logelak, eskaileraren bestaldera (ezkerraldera) daude lerrokatuta, egongelatik sarbideduna izanik handiena. Gainerako logeletara, sukaldetik egongelaraino doan pasabidetik joaten da. Pasabidearen bestaldean, eskailerako hutsguneak ematen duen espazioaz baliatuz, beste logela dago, oso txikia, hau ere etxebizitzaren pasabidera irekia, hain estua izateagatik kortinazko zarraketa baino ez duena.

Teilatupera, hirugarren solairuko etxebizitzatik bakarrik joan daiteke eta, hain altuera gutxikoa denez gero, ez zen ia erabilia izaten.

Azkenik, fatxada, zuriz kareztuta anilinako tinte apur batekin, zurlana berdez, balkoiak beltzez eta beheko zokaloa, grisez tintaturiko karesnez margotuta dagoela esan beharra dago.



Bermeoko arrantzaleen etxea. Profila eta aurrealdea (A.A).